

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 38/2020 Foru Dekretua, abenduaren 29koa. Onespena ematea 2020rako interes orokorreko helburuen eremuan lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda onetsi zuen Kontseiluaren irailaren 15eko 29/2020 Foru Dekretuaren aldaketari

Irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrien uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak arautzen du nola parte hartu behar duen sektore pribatuak lehentasunezko mezenasgo jarduerak eta programak finantzatzen.

Hain zuzen ere, foru arau horren 29. artikuluan 1. apartatuak dio Arabako Foru Aldundiak zehaztuko duela ekitaldi bakoitzeko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda, foru arau horretan bertan aipatzen diren interes orokorreko helburuen esparruan.

Aipatutako 29.1. artikulua oinarritzat hartuta, irailaren 15eko 29/2020 Foru Dekretuaren bidez onspena eman zitzaion interes orokorreko 2020rako xedeen eremuko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrendari.

Aipatutako foru dekretuak jasotzen duenez, mezenasgoari buruzko araudiaren arabera, irabazteko xederik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubideari buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak 29. artikuluan xedatutako zerga pizgarriak ez zaizkie inondik inora aplikatuko foru dekretu honetan lehentasunezko izendatzen diren jardueren erakunde egileek eskainitako zerbitzuengatik edo emandako ondasunengatik egindako kontraprestazioei.

Horren ildotik, foru dekretu honen helburua da lehentasunezko zatitako jardueretako baten idazkera argitzea, xedapen horretara egokitzeko, gaur egun duen idazkerak okerreko interpretazioak eragin balitzake ere.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Bakarra. Aldatzea irailaren 15eko 29/2020 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baita interes orokorreko 2020rako xedeen eremuko lehentasunezko mezenasgo jardueren edo programen zerrenda.

Aldatu egiten da 2. artikuluan Bat apartatuko e) letraren 9. apartatua. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“9. Dohaintzak, Eusko Jaurlaritzaren urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan araututako Euskal Autonomia Erkidegoko kirol federazioei eta haien erakunde elkartuei eginak, kirol federatu ez-profesionalari eta eskola kirolari dagokienez. Aurreko paragrafoan aipatutako dohaintzengatik kenkaria kalkulatzeko, oinarritzat hartuko da zergadunek kontzeptu horienegatik 2020an emandako zenbatekoen ehuneko 25.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2020. urterako izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 29a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA